

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

127/2021 Foru Agindua, martxoaren 5ekoa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena. Onestea 130 eredu, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena. Jarduera ekonomikoen ordainketa zatikatua. Jarduera hastea

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 110. artikulua ezartzen du jarduera ekonomikoren bat egiten duten zergadunek ordainketa zatikatua egin behar dituztela zerga horren kontura, araudi bidez zehazten den eran.

Ordainketa zatikatu horiek hiru hilean behin edo sei hilean behin egin ahal izango dira, erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera.

Pertsona fisikoen gaineko errentaren araudia onesten duen abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuko V. kapituluko VII. tituluan jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunen ordainketa zatikatua arautzen eta kuantifikatzen dira.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudia onesten duen abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren 107. artikuluko 1. apartatuko hirugarren paragrafoan ezartzen da ezen, jarduerari ekinez gero, zergadunak zatikako ordainketen autolikidazioa egingo duela hasiera urtean.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da onestea zatikako ordainketak autolikidatzeko 130 eredu berria, zeina erabili beharko duten jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek jarduerari ekiten dioten urtean.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena ikusi da.

Horregatik guztiagatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 130 eredu onestea

Onesten da 130 eredu, "Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga. Jarduera ekonomikoak. Ordainketa zatikatua. Jarduera hastea". Onartutako eredu foru agindu honen eranskinean dago jasota.

Jarduerari ekiten zaion urtean erabili behar dute eredu jarduera ekonomikoak (nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantzarekin lotutakoak barne) egiten dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek.

Jarduerari ekin eta hurrengo urtean, Foru Aldundiak zatikako ordainketen likidazioa egingo du ofizioz.

Bigarrena. Nola aurkeztu 130 eredu

130 ereduari dagozkion autolikidazioak telematikoki aurkeztuko dira soil-soilik.

Hirugarrena. 130 eredu aurkezteko eta ordainketa egiteko epea

130 ereduaren aurkezpena eta, hala badagokio, zerga kuotaren ordainketa hiru hilez behin egingo da, apirilaren, uztailaren, urriaren eta urtarrilaren 1etik hilabete horien hurrengoan 10era bitartean.

Hala ere, nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantza jarduerak soilik gauzatzen dituzten zergadunek ordainketa sei hilean behin egin beharko diote Arabako Foru Aldundiari, uztaileen eta urtarrilaren 1etik hilabete horien ondorengo 10era bitartean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da 179/2019 Foru Agindua, apirilaren 5ekoa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuarena, onesten duena pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 130 eredia. Jarduera ekonomikoen ordainketa zatikatua. Jardueraren hasiera.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 5a


Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA

ERANSKINA

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga Ekonomi Jarduerak Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas Actividades Económicas</p> <p>ZATIKAKO ORDAINKETA ■ PAGO FRACCIONADO JARDUERAREN HASIERA ■ INICIO DE ACTIVIDAD</p>	<p>130</p>
--	--	-------------------

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila **Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos**

AITORTZAILEA ■ DECLARANTE	
IFZ ■ NIF	Izena eta abizenak ■ Nombre y apellidos

AITORPENA ■ DECLARACIÓN		
Ekitaldia ■ Ejercicio	Zergaldia ■ Período	Jardueraren hasiera eguna ■ Fecha inicio actividad
901 Ordezko aitorpena Declaración sustitutiva	1	902 Aitorpen osagarria Declaración complementaria
902 Ordezko edo osagarria aitorpenaren kasuan, aurreko aitorpenaren sarrera erregistroko zenbakia En caso de declaración sustitutiva o complementaria, número de registro de entrada de declaración anterior		
930 Epez kanpo eta errekerimendu bidez aurkeztua Presentación fuera de plazo por requerimiento		

40 ZUZENEKO ZENBATESPEN: ESTIMACIÓN DIRECTA:	1 ARRUNTA NORMAL	2 ERRAZTUA SIMPLIFICADA
---	---------------------	----------------------------

EKONOMI JARDUERAK (NEKAZARITZA, ABELTZAINZTA, BASO ETA ARRANTZA JARDUERAK IZAN EZIK) ACTIVIDADES ECONÓMICAS (EXCEPTO ACTIVIDADES AGRÍCOLAS, GANADERAS, FORESTALES Y PESQUERAS)			
Hiruhilabeteko etekin garbiak Rendimientos netos del trimestre	01	× 5%	= 02
Kentzeko: hiruhilabeteko atxikipenak eta konturako sarrerak A deducir: retenciones e ingresos a cuenta del trimestre			03
Aldea ■ Diferencia	02	-	03 = 04
NEKAZARITZA, ABELTZAINZTA, BASO ETA ARRANTZA JARDUERAK ACTIVIDADES AGRÍCOLAS, GANADERAS, FORESTALES Y PESQUERAS			
Seihilabeteko etekin garbiak Rendimientos netos del semestre	09	× 6%	= 10
Kentzeko: seihihabeteko atxikipenak eta konturako sarrerak A deducir: retenciones e ingresos a cuenta del semestre			11
Aldea ■ Diferencia	10	-	11 = 12

LIKIDAZIOA ■ LIQUIDACIÓN	
Zatikako ordainketa Pago fraccionado	04 edo 12 = 17
ERRENTEN EGOZKETAN DAUDEN ENTITATEAK (sozietate zibilak, ondasun erkidegoak, ...) ENTIDADES EN ATRIBUCIÓN DE RENTAS (Sociedades Civiles, Comunidades de Bienes, ...)	
Partaidetza % % Participación	23 % × 17 = 18
Sartu beharrekoa A ingresar	17 edo 18 = 19
Aurreko autoliquidazioetan kontzeptu, ekitaldi eta zergaldi berberen arabera sartutako zenbatekoak Importes ingresados en anteriores autoliquidaciones por el mismo concepto, ejercicio y período	225
Aldea Diferencia	19 - 225 = 50
Luzapen-errekargua Recargo Prórroga	20
Berandutza-Korrituak Intereses de Demora	21
Sartu beharreko zerga zorra Deuda Tributaria a ingresar	22

RE 27/153